

KANPOKO PRAKTIKAK - OSASUN PSIKOLOGIA OROKORREKO MASTERRA INFORMAZIO OROKORRA

Kanpoko praktiken bidez ikasleek aukera dute Osasunaren Psikologiaren lanbidean murgiltzeko, eta, hartara, prestakuntza bidean dauden profesional legez arituta, praktikan jartzeko graduan eta masterreko lehen urtean eskuratutako gaitasunak eta prestakuntza teoriko eta praktikoa.

Kanpoko praktikak bigarren mailako lehenengo seihilekoan egiten dira. Guztira, 750 ordu dira (30 ECTS): 600 ordu praktika gunean bertan egin beharrekoak eta 150 ordu, bestelako lanak egiteko, adibidez, praktiken memoria egiteko.

Praktikak baimendutako osasun zerbitzuetan egiten dira; zerbitzuok osasun zentroen zerrendan erregistratuta egon behar dira eta hitzarmena izan behar dute sinatuta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearekin. Ikasleak aukera dauka 30 kredituak zerbitzu berean osatzeko, edo, bestela, bi zerbitzutan egin ditzake, bakoitzean 15 kreditu eginda. *Kanpoko Praktiken Plazen Katalogoa* web gunean dago eskuragarri.

Ikasleek begirale bat dute osasun zentroan, eta unibertsitatean, masterreko irakasle batek tutore lanak egingo ditu. Praktiken azken ebaluazioa unibertsitateko tutoreak egingo du, kontuan hartuta begiralearen txostena eta ikasleak egindako memoria.

1.- PROZEDURA

Kanpoko praktikak praktika gunean egiten dira begiralearen eta Psikologia Fakultateko tutorearen gidaritzapean (tutorea masterreko irakasle bat izango da).

Begiralearen eginkizunak dira: ikaslea praktiketara gidatzea, praktikak gainbegiratzea, ikaslearen azken ebaluazioko txostena egitea eta tutoreari bidaltzea. Oro har, begiraleak ikaslearen jarduerak gainbegiratu eta gidatuko ditu ikasleari gero eta erantzukizun eta autonomia handiagoa emanda. Begiraleak praktiketako osasun zerbitzuko beste profesional batzuen laguntza izan dezake, baina profesional horiek ezin izango dituzte begiraleari berari dagozkion lanak egin.

Tutorearen eginkizunak dira: osasun zerbitzuko begiralearekin eta ikaslearekin harremanetan jartzea praktikak noiz hasiko diren zehazteko; ikaslearen lanak eta bilakaera gainbegiratzea; praktiken kalifikazioa jartzea oinarri hartuta begiralearen balorazioa eta ikasleak egindako memoria.

Ikaslea aldian-aldian batuko da begiralearekin eta tutorearekin praktiken nondik norakoak gainbegiratzeko. Tutoretza horiek banan banakoak izan daitezke edo taldean egindakoak.

Osasun zentroak banatzeko, ikasleak masterreko lehen mailan izandako batez besteko nota hartuko da kontuan. Ikasleak berak aukeratu du osasun zentroa lehentasuna zehaztuta, eta gero batez bestekoaren arabera banatuko dira plazak. Hortaz, batez besteko handiena daukan ikasleari hurrenkeran lehenengo aukeratutako plaza esleituko zaio, hurrengo notarik handienari bere aukeren artean libre dagoen lehenengoa eta abar. Praktika guztiak esleitu ondoren, ikasleari jakinaraziko zaio zein zentrotan egin behar dituen praktikak eta nor den tutorea. Bestalde, tutoreari jakinaraziko zaio zein ikasleren tutore izango den eta osasun zentro bakoitzeko begilea nor izango den, eta tutorea harremanetan jarri beharko da berekin praktikak noiz hasiko diren zehazteko.

2.- IKASLEAK EGIN BEHARREKOAK

Praktiketan egindako jarduerak aldatu egin daitezkeen arren osasun zentroaren arabera, ikasleak ondokoak egin beharko ditu praktiketako begiralearen baimenarekin eta haren gidaritzapean:

1. Erabiltzaileak hartzea eta datuak biltzea klinikako historia osatzeko.
2. Erabiltzaileen ebaluaziorako eta esku-hartze psikologiko, kliniko edo asistentzialerako egingo diren saioak planifikatzea, saioetan behatzaile lana egitea, analisia egitea eta zuzenean parte hartzea, eta erabiltzaileari feedbacka egitea (ispiluaren atzetik edo gelan bertan egonda). Saioak banakakoak izan daitezke, edo familiarekin edo taldean egindakoak.
3. Beste iturri batzuetako informazioa biltzea, ebaluazio prozesuen edo esku-hartze psikologiko, kliniko eta asistentzialaren ingurukoa.
4. Esku-hartze psikologiko, kliniko eta asistentzialaren inguruko ebaluazio edo bilakaera txostena egitea.
5. Esku-hartze psikologiko, kliniko edo asistentziala gainbegiratzeko edo ebaluatzeko egiten diren bileretan parte hartzea.
6. Praktika zentroan taldea koordinatzeko edo jarduerak planifikatzeko egiten diren bileretan parte hartzea.
7. Beste zerbitzu batzuetako profesionalekin egiten diren koordinazio bileretan parte hartzea.
8. Praktiketako zentroak antolatzen dituen prestakuntza jardueretan parte hartzea (tailerretan, mintegietan eta abar).
9. Praktiketako zentroan egiten diren ikerketa proiektuetan laguntzea.
10. Praktiketako tutoreak aholkatutako materialak bilatzea eta aztertzea.

3.- KANPOKO PRAKTIKETAN LANDU BEHARREKO MASTERREKO GAITASUN OROKORRAK

1	Osasun integralaren kontzeptua barneratu, garatu eta praktikan jarri, osasunaren osagai biopsikosozailei leku eginda, OMEk finkatutako jarraibideekin bat etorrira.
2	Jarduera profesionalean bioetikaren oinarriak eta gogoeta egiteko metodoa aplikatu, eta osasun arloko profesional gisa jardun, osasun arloko lanbideak arautzeko azaroaren 21eko 44/2003 Legean xedatutakoari jarraiki.
3	Komunikatzen jakin, baita beste profesionalekin ere, eta pertsonen artean komunikatzeko eta emozioak egokiro gobernatzeko trebetasuna izan arazoa identifikatzeko, ebaluatzeko, diagnostikoaren eta esku-hartzearen berri emateko eta jarraipen psikologikoak egiteko prozesuetan.
4	Informazio klinikoaren iturriak erabili eta kritikoki aztertu.
5	Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili laneko egitekoetan.
6	Txosten psikologikoak egin hartzaileentzat, modu egokian.
8	Osasun arloko psikologo nagusiaren jardun esparrua ezagutu eta dagokion profesional espezialistarengana bidaltzen jakin.
9	Lana kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren ikuspuntutik garatu, lan profesional arduratsua izateko behar-beharrezkoa den autokritika egiteko gaitasunarekin.
10	Komunikatzen jakin, baita beste profesionalekin ere, eta lana taldean eta jakintza-alor anitzeko taldeetan egiteko beharrezkoak diren trebetasunak menderatu.
17	Giza portaeraren eta osasun-arazoekin lotutako faktore psikologikoen ebaluazio psikologikoaren prozesua planifikatu, gauzatu eta, hala behar duenean, ikuskatu, haien ebaluazioa zehaztu ahal izateko.
18	Ebaluazio psikologikoan eta kasu bakoitzean gertatzen diren aldagai indibidual eta sozialetan oinarriturik, esku-hartze psikologikoko planak eta programak diseinatu, garatu eta, hala behar badu, ikuskatu eta ebaluatu.
21	Norberaren eta komunitatearen osasun psikologikoa zaintzeko sustapen- eta heziketa-jarduerak egin.

4.- EBALUAZIOA

Kanpoko praktiken ebaluazioan begiraleak eta tutoreak hartzen dute parte.

Batetik, begiraleak Ikaslearen Ebaluazio Txostena beteko du eta tutoreari bidaliko dio. Txostenean zehatz jasota ageriko da balorazioa, hain zuzen ere ondokoei buruzkoa: profesioiko oinarrizko lanak, gaitasun profesionalak, jarrera, ezagutzak eta zeharkako gaitasunak.

Bestetik, tutoreak Kanpoko Praktiken Memoria ebaluatuko du (ikasleak hilabeteko epea izango du memoria aurkezteko praktika aldia amaitzen denetik kontatzen hasita).

5.- PRAKTIKETAKO ZENTROEN EZAUGARRIAK

Ondokoak dira kanpoko praktikak bete beharreko irizpideak ekainaren 12ko ECD/1070/2013 Ministerioaren Aginduak, I. atalean, 44952. orrialdean, jasotakoari jarraituz (agindu horren bidez zehaztu ziren Osasun Psikologia Orokorreko master ofizialeko unibertsitate tituluak egiaztatzeko baldintzak) (<http://www.boe.es/boe/dias/2013/06/14/pdfs/BOE-A-2013-6412.pdf>):

Masterreko kanpoko praktikak egiteko aukera emango duten osasun zentro edo zerbitzuek dagokien autonomia erkidegoko osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduen erregistroan osasun zentro gisa baimenduta eta erregistratuta egon beharko dute.

Kanpoko praktiken hitzarmena sinatu ahal izateko, osasun zentro edo zerbitzuek, gutxienez, oinarrizko elementu hauek bete beharko dituzte:

1. Zentroaren jarduera tasak irakaskuntzako helburuak beteko direla bermatzeko adinakoa izan beharko du: gutxienez 400 kontsulta urtean eta horietatik 80 kontsulta berriak. Era berean, kanpoko praktiketako ikasleen eta gainbegirale gisa jardungo duen psikologo kliniko edo orokorraren arteko ratioa gehienez ere 10/1ekoa izango da.

2. Garatzen den praktika klinikoarekin bat datozen baliabide material espezifikoak:

- *Historia klinikoen artxiboa: Konfidentzialtasuna bermatuz gorde eta erabili behar dira.*
- *Kasuen eta asistentzia jardueraren erregistro informatizatua.*
- *Liburutegia: Laguntza kliniko-terapeutikorako oinarrizko testuen gutxieneko kopuru bat eta/edo datu iturri digitaletarako sarbidea.*
- *Miaketa psikologikorako (testa) eta haztapan klinikorako (eskalak) tresnak.*
- *Eremu fisikoa: Prestakuntza jarduera espezifikoak egiteko erabilera aintzeko instalazioak edukitzea.*

3. Antolamendua, barneko kudeaketa eta kalitatearen kontrola:

- *Barneko antolamenduari buruzko arauak, idatziak eta ezagunak, eta, bereziki, osasun zentro edo zerbitzuen arteko koordinazioari buruzkoak, halakorik balego.*
- *Urteko programazioa, helburuen arabera.*
- *Jardueren urteko memoria.*
- *Oinarrizko protokoloak, eguneratuak, aplikazio diagnostiko eta terapeutikokoak.*
- *Aldizkako bilerak: Aldizkako saio klinikoak (gutxienez 1 hilean)*

4. Jardueraren adierazleak:

- *Giza baliabideak: Osasun Psikologia Orokorreko Masterra duten gutxienez bi psikologo, Psikologia Klinikoko espezialitatekoak, edo, behin-behinekoz, Gizarte Ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legearen 6. xedapen gehigarriaren 2. apartatuan adierazitakoaren arabera osasun jarduerak egiteko erregistratutako psikologoak.*



- Zentroan ezarritako jarduera programen esparruko laguntza programak/jarduera arautuak. Honako hauetako batzuk hartu ahal izango dira kontuan:

- Ebaluazio psikologikoko programa.

- Esku hartze psikologikoko programak.

- Programa espezifikoak: adikzioak, bikote terapia, adinekoen portaera nahasmenduei arreta, haur eta gazteen portaera nahasmenduei arreta, patologia kronikoak dituzten pazienteentzako laguntza psikologikoa.

5. Kanpoko praktikaren antolaketa, jarraipena eta ebaluazioa:

- Praktiketako profesionalen jarraipena eta ebaluazioa egiteko izendatutako tutoreak. Prozedura jakin baten arabera izendatzen dira eta aldian-aldian berrakreditatzen dira.

- Kanpoko praktika garatzeko banakako plan espezifikoa.

- Praktikaren erregistro dokumentatua eta banakakoa.

- Jarduera praktikoaren ebaluazio arrazoitua.